

## Ipuintxua

## ONTZ JAKINTSUA

An, antxiña, Ifurralden,  
zugatz zar bateko zuluau.  
Ontz Jakintsuak eukan  
beren etxe-entzun-tokia.  
Egunez juatenzian  
inguru areifako bizilariak  
ifurriko ura batzera,  
baifa be beste batzuk  
ango ur otz ta gozoa eratera.  
Dan areik, euren artian itzketanebeñ  
danetako barriak, ezanera, eztabaidek ta barriketak.

Baña, an goian euan beti gertu  
gure ipuiñeko Ontz Jakintsua  
entzunteko dan areik mintzatutenebena.  
Ontz Jakintsuak oldoztuteneben:  
– Ainbat ixildu ta adi nauenian  
– Obeto entzumentot.

- Ainbat obeto entzutendoteian
  - Obeto ulertutendot.
- Ainbat obeto ulertutendotenian
  - Geiago ikastendot.
- Ainbat geiago ikastendotenian
  - Geiago jakintendot.
  - Orregaitik, neretzat onena da:
  - Ixill-ixillik egotia:
    - Obeto entzunteko!
    - Obeto ulertuteko!
  - ta Obeto ulertu alaz  
Geiago ikasteko!
  - ta geiago ikasi alaz  
Geiago JAKINTEKO!.

ONTZATEGITXU  
Caracas, Venezuela

Ipuin au dago idaztifa Bizkaiko antxiñako euzkorean.



BILBAO  
UDALA  
AYUNTAMIENTO  
LAGUNTZAILLE

EUSKAL ASTEA  
(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k aurten be, urte guztietan lez, Bilbao'ko Udal-Batzaren diru-laguntzaz, EUSKAL-ASTEA egingo dau zemendiaren 29'tik abenduaren 3'ra. Itzaldia arratsaldeko zortziretan izango da. Gaiak eta izlariak sasoz iragarriko doguz.

EUSKERAZALEAK



BILBAO  
UDALA  
AYUNTAMIENTO  
LAGUNTZAILLE

IPUIN-SARIKETA  
(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oifarrri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-rea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
  - Ipuinak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
  - Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.
- Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.
  - Sariak lau izango dira:
    - 1.<sup>a</sup> 40.000 pezeta.
    - 2.<sup>a</sup> 30.000 pezeta.
    - 3.<sup>a</sup> 20.000 pezeta.
    - 4.<sup>a</sup> 10.000 pezeta.
  - Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK